

Ongi etorri 2026-27 ikasturtera

Aurtengoan ere iritsi da ikastolako ateak zabaltzeko eta ikasturte berriari ilusioz ekiteko unea. Aurrean ditugu, hilabetez hilabete biziko ditugun esperientzia, ikaskuntza, erronka eta une berezi guztiak.

Ikasturte berria hasiera bat da, baina baita elkarrekin jarraitzeko aukera ere: elkarri laguntzeko, ikasten jarraitzeko, harremanak zaintzeko eta komunitate gisa aurrera egiteko.

Aurten ere, gure ikasleak izango ditugu erdigunean, haien ongizatea, ikaskuntza eta garapena zainduz. Horretarako, ezinbestekoa izango da ikasle, familia, irakasle eta langileon arteko elkarlana.

Batera egingo dugu bidea, egunerokoan ikastola bizia, gertukoa eta guztiona eraikitzen jarraitzeko.

Bihotz-bihotzez, ongi etorri ikasturte berrira!

Ainhua Iturzaeta.

Udarregi Ikastolako Zuzendaria.



2026/27 ikasturteko [HH eta LHko egutegia](#) eta [DBHko egutegia](#)

Ikastolak: zer gara!

Ikastolak zer garen, zertarako sortu ginen eta nola garatu garen azaltzen duen [bideo bat](#) ikusgai duzu hemen.

Bideoak ikastolen jatorria eta ibilbidea azaltzen ditu, baita azken urteotan ikastola mugimenduak izan duen garapena ere. Horrez gain, familiak eta bazkideak gure proiektuaren parte izateak duen garrantzia azpimarratzen du, eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko komunitatearen inplikazioa beharrezkoa dela erakusten du.



IKASTOLAK

INIKA Kudeaketa akademikorako softwarea

Inika gurasoentzako mugikorrerako app berria martxan da eta aplikazio honek Alexia ordezkaturiko du. Inika aplikazioari esker, mugikorreitik ikastetxeko informazio esanguratsuena eskura izango duzue; ebaluazio notak, irakasleen jakinarazpenak, hutsegiteak, ikastolarekin komunikatzeko aukera, ... 2026/27 ikasturtean zehar edukiz betetzen joango gara.



Komunikazioak Inika bidez egingo direnez, ez duzue emailaz jasoko. Mezua jasoko duzue soilik adieraziz jakinarazpen bat duzula Inikan. Era berean, gomendagarria da mugikorrean notifikazioak baimentzea, momentuan jakinarazpena jasotzeko mugikorrean.

Aplikazioa ANDROID eta iOS-entzat prestatuta dago eta Google Play eta App Store-tik deskargatu ahal izango duzue bilatzailean **Inika familiak** jarritz. Hala ere, edozein zalantza edo laguntzarik behar izanez gero, idazkaritzarekin jarri harremanetan.

Telefono mugikorreireta smartwatcheireburuzko arautegia ikastolan

Azken urteetan ikasleak ikastolara ekartzen dituzten Smartwatch edo erloju adimenduekin, egunerokotasunean arazoak izaten ari gara. Arazo horiek, aipaturiko gailu horiek dituzten jolas, kamara eta aplikazio desberdinek sortzen dizkigute.



Bestalde, gure ikasleen adina kontuan hartuta, ulergarria da gailu horien baliabide ugariak ongi kudeatzeko gai ez izatea.

Ondorioz, gai honekin loturik ikastolak duen arautegia bidaltzen dizuegu:

- Debekatuta dago telefono mugikor eta smartwatch-en erabilpena ikastolako ordutegian, jangela eta zaintza barne.
- Gailuak ezingo dira soinean eraman, motxilan gordeta eduki beharko dira.
- Ikastola ordutan itzalita edukiko dituzte.
- Irteeretan: Eguna edo gaua pasatzeko irteeretan, telefono edo smartwatchen erabilpena ikastolan arautzen den berbera da.
- Arauak hautsiz gero, (ikastolan edo irteeretan)ikasleari gailua kendu egingo zaio, gurasoei deitu eta gailua gurasoei itzuliko zaie.

Ikasketa-beka

2026/2027 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea **irailaren 30** arte irekita egongo da.

Informazio guztia [hemen](#) ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagorako idazkaritzarekin jarri harremanetan.



Era berean, Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka-sistema propioa eskainiko die bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak [hemen](#) irakur daitezke.

Beka idazkaritzan bideratzeko eskatu txanda idazkaritzan.

Liburutruk

Liburutruken parte hartzen duten ikasleei, liburuak ikastolako lehenengo egun hauetan banatzen ari zaizkie. Liburuak jasotzearekin batera, ikasle bakoitzak liburu guztiak jaso dituela egiaztatu beharko du. Behin egiaztatuta, liburu guztiak behar bezala jaso direla ulertuko da. Ikasturte amaieran liburu guztiak egoera egokian (puskatu eta margotu gabe,...) itzultzen ez badira, bere kostu prezioan kobratuko dira. Bigarren zatia kobrantza, irailaren 30ean egingo dela jakinarazten da.



Ikastolako zerbitzuak eta prezioak

Ikasturte honetako Ikastolako eta zerbitzuetako kuotak jarraian adierazten dizkizuegu. Horien kobrantza **hilaren 16an** egingo da:

* Liburutruk.

Ekainean 60 €-ko bermea kobratu zen eta iraileko erreziboekin batera, gainontzeko likidazioa kobratuko da. Prezioak honakoak izango dira:

- LH: 63,35 €

- DBH: 79,00 € + hautazkoak: DBH4 Fisika/Kimika: 17,76 €

DBH4 Biologia/Geologia: 17,76 €

Frantsesa DBH1: 18,81€

DBH2: 18,81€

DBH4: 45,71€



*** Kooperatibako kuota osagarria eta elkartasun-kutxa.**

2026/27 ikasturtean Kooperatibako kuota osagarria hileko eta ikasleko **38,76 €** izango da. Elkartasun-kutxa, **4,10 €** hileko eta familiako. Kuota horiek **12 hilabetez (iraila-abuztua)** kobratzen dira.

*** Ikasle-asegurua.**

Ikaslearen istripu-asegurua urteko prezioa **18,10 eurokoa** izango da eta urrian kobratuko da. Zerbitzu mediku guztiak kontzertatutako zentrora joanez emango dira.

*** Bazkide kuota.**

Udarregi Ikastola guraso-kooperatibako urteko bazkidetza kuota **12,02 eurokoa** izango da eta azaroan kobratuko da.

*** Garraioa.**

Garraio-zerbitzuaren hileko kuota **60,00 eurokoa** (12 hilabetez) izango da. Erabilera solteetarako zerbitzua eskainiko da. Horretarako, idazkaritzarekin jarri harremanetan.

*** Goizeko zaintza.**

Goizeko 8:00etatik 9:00etara eskaintzen da zerbitzua. Arduradunak Idoia Encinas eta Iban Maritxalar izango dira. Kuota **28,00 euro hileko** izango da **10 hilabetez**.

*** Jangela.**

Jangelako kuota, bazkaldar-kopurua eta jangelaren erabileraren arabera kalkulatzeko, izen-ematearen arabera kalkulatu da eta jakinaraziko zaizue buletin bidez. Iraileko menuak egun solteka kobratzen dira, menu bakoitza **8,50 €**. Jangelako menuen kobrantza hurrengo hilabetearen egiten da.

Laburpena hemen doakizu hilez-hil kobratuko denaren laburpena.

Edozein aldaketa balego, jakinaraziko litzateke albiste buletin bidez.

Jangela-zerbitzua

- **Jangela-batzordea:** Bertan jangela-zerbitzuaren eskaintzaz, funtzionamenduaz, antolaketaz eta menuez hitz egiten da, besteak beste. Funtzionamenduaren jarraipena egiteko, bi hilabetez behin ordubeteko bilerak egiten dira. Bertan parte hartu nahiko bazenu, idazkaritzara deitu edo gelako tutoreari adierazi.

- **Iraila:** Jangela-zerbitzua irailaren 8tik eskaini da. Eskolak goizez diren egunetan, bazkaltzeko txanda bakarra eskainiko da 12:30ean. Bazkal ondoren etxera bakarrik joateko baimena duten ikasleen kasuan, usurbil@ikastola.eus



helbidera idatziz adierazi beharko da. Gogoratu, LH3. mailatik gorako ikasleek soilik izango dutela baimen hori izateko aukera eta LH4. mailatik gorakoek izan dezakete anaia edo arreba txikiago bat etxera eramateko baimena.

Irailaren 28tik aurrera bazkaltzeko bi txanda egongo dira:

HH3-LH2: 12:30ean

LH3-DBH4: 13:30ean

Hilabete honetan bazkaldarrek izango duten menua honako esteka hauetan ikus dezakezue: [menu arruntak](#) eta [menu bereziak](#).

- **Izen-ematea:** Norbaitek jangela zerbitzua erabili behar izanez gero edo izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du gutxienez bezperan 13:00ak aurretik. Horrela egin ezkerro, menuari dagokion deskontua, **3,30 €**, aplikatuko da.

Garraio publikoa erabiltzeko txartela

Aurten ere, irteeretarako, ahal den neurrian, garraio publikoa erabiltzea lehenetsiko da. Hori horrela, irteerak modu egokiagoan eta merkeago egite aldera, **ikasle bakoitzak bere Mugi txartela ateratzea** gomendatzen da. Era horretan, 12 urtetik beherakoek doan bidaiatuko dute eta gainerakoek %50eko deskontua izango dute.



Bertso-eskola 2026/2027

Aurten ere, 2026/27 ikasturterako guraso talde baten eskutik, bertsolaritza eskolak antolatuko dira LH3tik DBH4ra.

Noiz: astelehenero urritik maiatzera Udarregi eraikinean 12:30etik-13:30era (LHkoak) eta 13:30etik-14:30era (DBHkoak)

Bertsolaria: Lierni Rekondo

Urteko kuota: 65 euro

Kontaktua: 608 768 539

HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzako irteera orduak

Haur hezkuntzako ikasleen irteera orduak honokoak direla gogorarazten dizkizuegu.

- **HH2:** 12:20 eta 16:20
- **HH3:** 12:20 eta 16:20
- **HH4:** 12:25 eta 16:25
- **HH5:** 12:25 eta 16:25



LEHEN HEZKUNTZA

Guraso-bilerak LH

Bilera orokorretarako datak jakinarazi nahi dizkizuegu.

- | | |
|------------|-------------------|
| • 1. Maila | Irailak 22 |
| • 2. Maila | Irailak 28 |
| • 3. Maila | Irailak 17 |
| • 4. Maila | Irailak 23 |
| • 5. Maila | Irailak 21 |
| • 6. Maila | Irailak 24 |



Bilerak, **ikasleen geletan** egingo ditugu, **16:45etan**.

Bileretako txostenak Inika bidez bidaliko dira.

Ez da zaintza zerbitzurik egongo.

BIGARREN HEZKUNTZA

Ez dago informaziorik.